



HITZARMENA BIOEF/BIOBANCO — EHU

EHUko ikertzaile batek ikerketa-proiektu baterako Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren kontrolatik edo pazienteetatik datozen lagin biologikoak behar dituzenean, Euskal Biobankuaren web-orriaren bidez eskatu behar ditu: <https://www.biobancovasco.bioef.eus>

"Profesionalentzat" atalean, "Laginen kudeaketa" puntuan sartu behar da.

Lehenik eta behin, erregistratu egin behar da, eta eskatzailearen datuak eta fakturazio-datuak adierazi. Ikertzailea erregistratu ondoren, erabiltzailearekin eta pasahitzarekin sartu ahal izango da, eta lagin-eskaera egin ahal izango du, eta Euskal Biobankuaren laguntza-dokumentuan adierazitakoarekin bat etorrita, ikerketa-proiektu bat eta etika-batzorde baten onarpena erantsi beharko ditu.

Euskal Biobankua eskatzailearekin harremanetan jarriko da eskaera aztertzeko. Beharrezkoa izanez gero, koordinazio-bilera bat antolatuko da eskatzailearen, ikerketan lagundu dezaketen klinikoen eta Biogipuzkoa, Bioaraba eta Biobizkaia Osasun Ikerketako Institutuen ordezkarien artean.

Ikerketarako laginak doakoak dira, eta horiek lortzeko, prozesatzeko eta biltegitratzeko kostua baino ez da eskatuko. Tarifak Euskal Biobankuaren webgunean daude eskuragarri.

Eskaera onartu ondoren, laginak lekualdatzeko hitzarmena (MTA) sinatuko da Euskal Biobankuaren eta EHUren artean.

BIOEF/EUSKAL BIOBANKUATik jasotako MTAREN tramitazioa osatzeko, pausu hauek egin behar dira:

a) EHUko IKERTZAILE ARDURADUNAK, Euskal Biobankuari laginak eskatzen dizkionak, hauek bete behar ditu:

1. Laginak manipulatzeko Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB-EHU) aldeko txostena izatea, hemen eska daitekeena: <https://www.ehu.eus/formulariosCEID>
2. Euskal Biobankutik datozen laginen datuen tratamendua deklaratzeko. Datuen tratamendu bat deklaratzeko, erregistro-formularioa bete eta bidaliko da Biobankuaren laginak direla adieraziz: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/tratamenduak-erregistratzeko-formularioa>,
3. Elektronikoki sinatzea BIOEF/BIOBANCO-UPV/EHU MTA azken orrialdean.
4. MTA sinatuta bidaltzea Etika Zerbitzura (bioseguridad@ehu.eus), honako hau adieraziz:



- ABIEBetik lortutako aldeko txostenaren erreferentzia-zenbakia, EHUko instalazioetan giza jatorriko lagin biologikoak manipulatzeko (adibidez: M30/2026/XXX)
- Biobankuaren laginetarako deklaraturako datu-tratamenduaren zenbakia.

b) ETIKA ZERBITZUAK

1. Ikerketa errektoreordearen sinadura izapidetuko du.
2. Biobankuari bidaliko dio MTA, falta diren sinadurak lortzeko, eta horrela eskatutako laginak eta datuak bidali ahal izateko.

Euskal Biobankuarekin harremanetan jartzeko: solicitudes.biobancovasco@bioef.eus
Tel: 944 536 890.